

ZEBARRI

2009ko NEGUA

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA



1509 - 2009

badoa 500. urteurrena

ETA GAINERA...

- ♦ BOGAKO NAZIOARTEKO GELA
- ♦ GABONAK IKASLEEN BEGIETATIK
- ♦ UMEEN TXOKOA ...ETA ABAR



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Sektorea
Departamentu de Cultura



ETXEBARRI ZAHARTZEN ARI ZAIGU

Gure herriak 500 urte bete dituen arren, zahartu baino gazte-gazte dago oraindik. 2009. urtea oso berezia izan da Etxebarri bere urteurrena ospatu duelako.

Aldaketa ugari izan ditu eta atzera begiratzen badugu konturatuko gara ez daukala lehengo herriarekin zerikusirik handirik.

Duela 500 urte, hau da, 1509an Etxebarri Gangurengo Santa Mariaren elizatearen menpe zegoen. Urte horretan Galdakaotik banatzea lortu zuen eta XVI. mendean Kukullagan zegoen Etxebarriko San Esteban elizatea sortu zen. 1704. urtean herritik barreiatutako baserrietan bizi ziren 100 izatetik 9.000 biztanle baino gehiago izatera pasa gara. Baina Zebarri honetako 4.

orrialdeko artikuluan hitz egingo dugu horretaz.

Landa-eremu izatetik herri industrializatua izatera pasatu da bere kokapen estrategikoagatik, Bilbotik oso hurbil baitago.


Parke eta zonalde berde asko sortu dituzte herritarrok goza ditzagun eta...nork esango! Metroa ere ailegatu da Etxebarrira! Gaur egun, etxebizitza berriak eraiki dituzte eta horregatik kanpoko pertsona ugari etorri dira hona bizitzera. Horren guztiaren ondorioz, herriaren ekonomia ere nabarmen hobetu da.

Urte hauetan izan ditugun aldaketak ospatzeko Udalak hainbat ekintza antolatu ditu:




Bisitaldi antzeztuetako bat egin zuen jendea, Zintururin.

Aurreko urteetan bezala aurten ere Erdi Aroko Azoka egin da. Azoka horren helburua Etxebarri sortu zen garaira bueltatzea da eta horrekin batera garaiko ohiturak, janariak eta abar ezagutaraztea. Hala ere, aurten ezberdina izan da; izan ere, garai hartako jantzi bereziak egiteko tailerra prestatu baita nork bere jantzia josteko eta bakoitzak egindako jantziarekin joan zedin azokara.



Proiektzioak elizan.

Argazkia Alberto Rodrigorena da




Horretaz gain, bisitaldi anitz egin dira, bizikletaz, autobusez eta oinez Etxebarriko biztanleek beren herria ezagutu zezaten. Bisitaldi horien bidez inguratzen gaituzten txokoei erreparatu diegu, haien artean elizaren inguruak eta eliza bera. Elizan ere, ikus entzunezko ekitaldi bat gauzatu zuten. Eraikina hainbat koloretako fokuekin argiztatu zuten eta irudi zaharrak proiektatu zituzten.

Beste ekintzen artean oso deigarria izan zen errekorren Guinness liburuan sartzeko egin genuen ahalegina. Pertsonaz osatutako ehunzangorik luzeena egitea zen asmoa baina gutxiarik ez genuen lortu.

Ospakizunen urte hau amaitzen ari zaigu eta itxaron beharko ditugu beste milurteko erdi bat beste urteurren bat ospatzeko.

Gugatik balitz, 501. urteurrena ere gustura ospatuko genuke.





Guinness errekorra lortzeko ahalegina, epailearen begiradapean.

BAZEN BEHIN...

Herri ñimiño bat, Nerbioi ibaiaren parean zegoena. Bertan etxe gehiago zeuden pisuak baino eta auzokide guztiak elkar ezagutzen zuten. Haur guztiak frontoian pilatzen ziren, pilotan edo futboleant jolasteko. Herri lasaia zen, kanpotar gutxi etortzen ziren... Etxebarri buruz ari gara 1990. urtean.

Ondoko hirietan, Basaurin eta Bilbon, jende gehiegi zegoen eta eremu berderik ez. Jendea leku atsegin baten bila ari zen, hiriko eromenetik ihes egiteko. Etxebarri Bilbo eta Basauri artean zegoen paradisu bat zen eta horregatik jendeak herri hau aukeratu zuen. 1995.ean 6.505 pertsona bizi ziren Etxebarrin, eta 2009an 9.013! Beraz, azkeneko 14 urtetan biztanleria %50 handitu da. Polikiroldegi berriak frontoiaren papera hartu du eta pisuek baserrien lekua. Hala ere, nahiz eta etorkinak asko izan, eremu berdeak mantentzen dira eta baita lasaitasuna ere. Zorionez!



2000 hamarkadan garraioak asko hobetu dute Etxebarrin. Adibidez, Eusko-Treko geltoki berria eraiki dute, metroa iritsi da eta berarekin Basaurira joateko "lanzadera". Gainera Etxebarribus jaio da San Antonio eta San Esteban lotzeko. Honi guztiari gehitzen badiogu etxebizitzaren salneurria merkeagoa dela, gazte askok gure herrira etorri nahi dute.



Gure klasean, gehienak kanpotarrak gara, baina herria zaintzen ikasi dugu eta bilatzen genuen bizi-kalitatea aurkitu dugu. Hala ere, etorkizunari begira, badirudi populazioak oraindik gehiago gora egingo duela. Izan ere, geroz eta etxebizitza gehiago eraikitzen ari dira. Horretaz gain, Etxebarrin Bizkaiko haur-kontzentrazio handiena dagoenez, udalak haur-eskola berri bat eraiki du. Beraz, hau guztia ikusita, esan dezakegu Etxebarriko etorkizuna oparoa izaten jarraituko duela.



gabonak ikasleen begietatik



Gabonak umeentzakoak dira? Noski ere!

Zenbat eta adituagoak izan, hainbat eta galduago dugu Gabonetako magia.

Nire gogorapen politenak haurtzaroan zeuden. Esate baterako, gure etxean, txikitan, beti lehengusinarekin eta bere gurasoekin egoten ginen. Eta Gabon Gavean jolasten genuen "Un, dos, tres" saioan bezala.

Bildu ginen Gaboneko zuhaitzaren inguruan eta batek egiten zuen aurkezlearena eta beste batzuk, partaideak izan ginen. Horrela egoten ginen gau osoan lo hartu genuen artean. Urteak igaro dira, hori guztia galdu da; horrexegatik itxaroten dugu umeak berriro gure etxera agertzean.

Ene umeek ematen diete bizi za Gabonei!!

Noelia

Gure herrian urtero, udalak ekitaldi asko antolatzen ditu umeentzat.



Beti Olentzeroren desfile batekin hasten da abenduaren 24a, goizez.

Gero asteen beti jolasak eta puzgarriak daude frontoi barruan.

Bukaeran urtarilaren 5ean arratsaldean Erregeen kabalgata bat dago.

Errege bakoitza kamioaren gainean doa, gozokiak botatzen dizkie umei.

Iñaki



Gabonak gustatzen zaizkit eta uste dut mundu guztiari, familiarekin pasatzea, lagunekin egotea,

Olentzeroren eta erregeen opariak hartzea, kaleak apaintzen dituen argi guztiak ikustea,

...Gure herrian erregeen kabalgata egiten da, baita ere Olentzero kaletik irteten da, umeak ikusteko.

Txikitan, gaur baino gehiago gustatzen zitzaizkidan gabonak, baina oraindik ez dut poza galdu.

Yaiza

Txikia nintzenean abenduaren 24an oso urduri ibiltzen nintzen egun osoan

eta 24aren gabean ezin izaten nuen lorik egin, Olentzero zetorrelako.

Normalean, goizeko 6etan altxatzen nintzen opari guztiak zabaltzeko eta jostailuekin jolasteko.

Txikitan, asko gustatzen zitzaizkidan gabonak, baina gaur egun beste begiekin ikusten ditut.

Adrian

Badator berriz; ezin da ukatu; Kanean argiak ipintzen hasi da udala; jendea irribarrez pentsatzen du ea non eta nola emango dituen jaiak egutegia ikustean; Gabonak hementxe ditugu.

Ze poza, egun hauetan, dena arrosa kolorekoa da; aireak freskoagoa ematen du; kaleak distiratsuak eta mila koloreekin jantzita daudela iruditzen zaigu; jende guztia joera on eta abegikor hartzen du eta kanta egiten du kanean zehar,.....

A ZE LELOKERIA GALANTAKI!

Gabonak heltzeagatik ez da ezer aldatu, mundua beti bezala jarraitzen du, ez da bilakatu aztikeriaren bidez azukre koxkor bat; mundu osoa Gabonak aurretik egiten zen bezalaxe mugitzen da; dendariak egunero bezala ez du barkatuko zentimo bakar bat ere; puzkerrak ez dira lurrinen antzera usaintzen, kakaren antzera baizik.

A ZE ERREALITATE KRUELA!


Gabonak ez dira magikoak, garai batean izan ziren alegia, baina orain kontsumismoaren jaietan bihurtu direla ozta-ozta xarma guztia galdu egin da. Geure barruan Gabonetako lilura eta berotasuna bilatzen ditugu, hala ere, orain ez dago azti itzel batek gure nahiak egia bihurtuko dituenik

A ZE PENAI!

Gabonetako magiaren eza, bakarrik guk geuk alda dezakegu. Azkenean, jai hauek pozgarri eta zoriontsuak izan daitezten geuk gogor lan egin behar dugu, guk geuk ekarri behar dizkiogu besteei irribarrea, poza, jaiak ospatzeko irrika eta azkenean mundu osoari zoriontsua bihurtzeko gogo.

GEUK DENOK IZAN BEHAR DUGU GABONETAKO AZTIAKI!

David



Aurtengo gabonetan espero dut telebista ez ikustea.

Iaz gabon zaharraren afariaren bitartean ez dakit nork izan zuen burutazio xelebre hau: telebista itzali.


Betidanik, otarrainxkak asko gustatzen zaizkit. Nire amak xerarekin prestatu zizkidanak jaten nituelarik Belen Estebanen oihuak entzun nituen. Berehala oka egin nuen. Hura atsekabea! Ordutik aurrera, telebista kanpora gabonetan eta bizitzan zehar, otarrainxkak gehiago maite ditut eta.

Eva



NAZIOARTEKO IKASGELA

PROIEKTU BERRIA ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEENTZAT



Euskaltegi autoikaskuntza-ataleko 1. eta 2. urratsetako ikasleek euskara praktikatzeko beste tresna bat daukate joan den azaroaren 3tik.

Proiektu honen izenak adierazten duen moduan, Nazioarteko Ikasgela (NI) euskara ikasleak ez ezik, irakasleak ere euskaraz aritzeko gune berria da, mugaz gaindi. Gunea Ulibarri euskaltegiak BOGARako erabiltzen duen eremu berean kokatuta dago.

Proiektuak irakasleen arteko elkarlana bultzatu eta ikasleen arteko harremanak sortzea ahalbidetu nahi du distantzia fisikoa desagerraraziz. Aurtengoa esperientzia pilotua izanik, ikasturte honetan komunikaziorako zubiak eraikitzen saiatuko dira bertan dauden irakasle zein ikasleak. Honetarako, hilean

birritan, ikasleei aktibitate errazak proposatu zaizkie eta foro baten

bidez euren lantxoak partekatuko dituzte. Gainera, gune barruko mezu-sistema erabiliz, elkarri mezuak bidaltzeko aukera daukate maila pertsonalean.

Esperientzia berri honen balorazioa egiteko ordua ailegatzten denean, egindako bidea aztertuko da eta, aurrera segitzea erabakitzen bada, ikasgelak beste urrats batzuetako ikasleentzat atek zabalduko ditu.

Momentu honetan, Etxebarriko partaideez gain, Estatu Batuak, Argentina, Brasil eta Frantziako lagunak daude, besteak beste, irakasle eta ikasleen artean.

Kanta zaharrak dioen moduan "Aitorren hizkuntz zaharra nahi dugu zabaldu..."


ONGI ETORRI Nazioarteko Ikasgelara!

1 **IRAKASLEENTZAKO TXOKOA**

Hona hemen materiala trukatzeko gunea eta irakasleentzako foroa.

IRAKASLEEN OBRABEHERRAK
 IRAKASLEENTZAKO TALLERRA
 MATERIALA: ANE

2 **LEHENEGUSO ZEREGINA / PRIMERA TAREA / FIRST TASK**



OHARRA / NOTA / NOTICE
KALKOITZ
Nazioarteko ikasgelako orriak

3 **BIGARREN ZEREGINA / SEGUNDA TAREA / SECOND TASK**



NIRE HERRIA / HIRIA

Ona gertu...
(Ez dago maha berririk)

Datozen ekitaldiak

Ez dago ekitaldirik isaten

Jarri egutegia.
Sutatu saria.

Duela gutxiako aktibitatea

Norik martxoaren 12an, 2009ko azaroaren 12an
Duela gutxi aktibitatearen berritasuna

Ez dago ezer berririk aurkitu ziteke

HIZTEGIAK

Elizburu
Mama
Euskaltegiak
Euskaraz
Hizkuntza
Ikasleak
Euskararen

ADITZAK

Adozak

KIOSKOA

berria
argia
guzuzia

BIDEOAK

euskaraz

EUSKAL KANTAK

Euskal kantuegia

EUSKAL KULTURA

Euskaraz
Euskal Kultura

Nazioarteko gelaren web gunea

KAFE ANTZOKIA POLEMIKAZ BLAI

Etxebarrin Kafe Antzokia ireki dute eta honek zenbait eztabaida piztu ditu herritarren artean. Eztabaida hauen inguruan hartutako jarrerak herri bitan bereizi dute; batetik, antzokiaren aldekoak direnak, eta bestetik, antzokiaren aurkakoak. Baina zer dela eta horrenbesteko iskanbila?

Kafe Antzokia metro geltoki alboko eraikin berrietan jarri dute, Ametzola kalean hain zuzen ere.

Auzokideei aisia eskaintzea zen berau zabaltzeko arrazoa. Dakigunez, Etxebarriko udala izan da Kafe Antzokiaren jabeari beharrezko baimenak eman dizkiona. Antzokiaren aurkakoek udalaren erabakia ez dute onartzen. Haien ustez, Antzokiak ez ditu arauak betetzen eta ez luke baimenik izan behar. Argi plazaratu dituzte aldarri hauek komunikabideetan eta herrian antolatu dituzten mobilizazioetan.

Hona hemen batzuen eta besteen iritzia:



"Etxebarrin Kafe Antzokiak jarduera desberdinak ikusteko aukera emango digu, Etxebarriko gazteei ere herrian geratzeko aukera zabaldu die, kanpora joan ordez.

Harrigarria da, bestalde, Kafe Antzokiaren inguruan irekitako gainontzeko tabernekin iskanbilarik sortu ez izana.

Gure iritziz, herriko eraikin berriekin batera hainbat taberna ireki dituzte eta honek herriko giroa sustatu egin du. Lehen bagenuen herrian non poteatu, baina orain aukera zabalago dagoenez, gehiago goza dezakegu."


"Kafe Antzokiari dagokionez, zenbait gaik kezkatzen gaituzte.

Zikinkeria nagusituko delakoan gaude, gazteek haien zaborrak botata utziko dituztelako. Gainera, edan eta gero jendeak hartzen dituen jarrera ez gizabidezkoek ere arduratu egiten gaituzte, txiza edozein tokitan egingo baitute.

Horrez gain, ordutegi zabalegia du. Auzokideok lo egin nahi dugu eta asteburuetako kaleko zalapartarekin ezinezkoa da. Kafe Antzokiak gure atsedinari egingo dio kalte, ez dugu zaratarik nahi! Lasai bizitzeko Etxebarri nahi dugu, ez Bilbo bezalako hiri bat."

Kafe Antzokiaren inguruko eztabaida azalerratu, Etxebarriko auzokideak norbanako hausnarketa egitera gonbidatu nahi zaituztegu. Izan ere, bi jarreraren arteko akordioa bultzatu beharrean gaude, guztion elkarbizitzaren hobe beharrez.

Umeen Txokoa



Guk, bigarren urteko amek, kurtso honetan gauza asko ikasten dugu. Alde batetik, aditzak, lokailuak, adjektiboak, posposizioak. Bestetik, Zertarako balio du eta hitz berri pilo bat. Horrexegatik, horrela guk gure seme-alabekin jolastu ahal dugu eta, aldi berean, ondo pasatzen dugu haiekin.

Umeekin jolasean gabiltzanean asmakizunak egin ahal ditugu, eta hona hemen aurkitu ditugun batzuk:

-Ikasleek erabiltzen dituzte; informazioa bilatzeko balio dute; mardulak edo meheak dira. Irakurtzeko balio dute eta ikasteko ere bai. Eskolara motxilan eramaten duzue.

(LIBURUA)



-Beltza barruan, beltza kanpoan

(IKATZA)



-Zuria barruan, marroia kanpoan

(KOKOA)



-Gizon txikia, txapel handia

(PERRETXIROAK)



-Puntan punta bi, atzealdean zulo bi

(ARTAZIAK)




-Barruan zuria, kanpoan horia

(BANANA)



-Kanpoan gogorra, barruan biguna

(ARRAUTZA)




-Zazpi neba-arreba gara etxe batean bizi gara

(ASTEA)



Egun magikoa!

(Umeen gabonak gurasoen begietatik ikusita)



Dena hasten da umeez, ilusio osoz, Olentzerorentzako gutuna idazten dutenean. Izan ere, haiei oso gustatzen zaie gabonetako arbola jartzea ere. Umeezin paseatzera joango gara eta haurrak koloretako argiekin liluratuta geratuko dira. Korrika joan behar dugu, entzun dugulako Olentzero plazara helduko dela. Goazen etxera euskal arropa janztera! Gabonetako arbolaren aurrean jarriko gara. Irten baino lehen, urtero arbolaren aurrean argazki bat ateratzen dugu, iazko argazkiarekin konparatzeko. Ze aldatuta gauden!

Gero, plazara jaisten gara eta ilaran jartzen gara Olentzerori gutuna emateko! Lagunekin egon eta etxera joango gara afaltzera mahai polita jarriko dugu eta...on egin!

Batzuek mahaia batu eta harrikoa egin bitartean beste batzuek zapatak garbitu eta esnea, gailetak, aitzuketa, anisa eta turroia ipiniko dituzte.


Azkar-azkar eseriko gara elkarrekin bingoan, kartetan edo mahai-jokoetan jolasteko! Neska-mutilak, 4ak dira! Joan ohera oraintxe bertan! Olentzero etorriko delako!

Eta biharamunean...

Umeok! Gora! Olentzero heldu da eta opariak ekarri ditu etorri egongelara opariak ikustera. Denok oso pozik gaude opariak gustatu zaigulako Olentzero aurten ondo portatu da.




Umeen Txokoa



Guk, bigarren urteko amek, kurtso honetan gauza asko ikasten dugu. Alde batetik, aditzak, lokailuak, adjektiboak, posposizioak. Bestetik, Zertarako balio du eta hitz berri pilo bat. Horrexegatik, horrela guk gure seme-alabekin jolastu ahal dugu eta, aldi berean, ondo pasatzen dugu haiekin. Umeen jolasean gabiltzanean asmakizunak egin ahal ditugu, eta hona hemen aurkitu ditugun batzuk:

-Ikasleek erabiltzen dituzte; informazioa bilatzeko balio dute; mardulak edo meheak dira. Irakurtzeko balio dute eta ikasteko ere bai. Eskolara motxilan eramaten duzue.

(LIBURUA)



-Beltza barruan, beltza kanpoan

(IBATZA)



-Zuria barruan, marroia kanpoan

(KOKOA)



-Gizon txikia, txapel handia

(PERRETXIKOAK)




-Puntan punta bi, atzealdean zulo bi

(ARTAZIAK)



-Barruan zuria, kanpoan horia

(BANANA)



-Kanpoan gogorra, barruan biguna

(ARRAUTZA)




-Zazpi neba-arreba gara etxe batean bizi gara

(ASTEA)



Egun magikoa!

(Umeen gabonak gurasoen begietatik ikusita)



Dena hasten da umeez, ilusio osoz, Olentzerorentzako gutuna idazten dutenean. Izan ere, haiei oso gustatzen zaie gabonetako arbola jartzea ere. Umeekin paseatzera joango gara eta haurrak koloretako argiekin liluratuta geratuko dira. Korrika joan behar dugu, entzun dugulako Olentzero plazara helduko dela. Goazen etxera euskal arropa janztera! Gabonetako arbolaren aurrean jarriko gara. Irten baino lehen, urtero arbolaren aurrean argazki bat ateratzen dugu, iazko argazkiarekin konparatzeko. Ze aldatuta gauden!

Gero, plazara jaisten gara eta ilaran jartzen gara Olentzerori gutuna emateko! Lagunekin egon eta etxera joango gara afaltzera mahai polita jarriko dugu eta...on egin!

Batzuek mahaia batu eta harrikoa egin bitartean beste batzuek zapatak garbitu eta esnea, gailetak, aitzuketa, anisa eta turroia ipiniko dituzte.

Azkar-azkar eseriko gara elkarrekin bingoan, kartetan edo mahai-jokoetan jolasteko! Neska-mutilak, 4ak dira! Joan ohera oraintxe bertan! Olentzero etorriko delako!

Eta biharamunean...

Umeok! Gora! Olentzero heldu da eta opariak ekarri ditu etorri egongelara opariak ikustera. Denok oso pozik gaude opariak gustatu zaigulako Olentzero aurten ondo portatu da.



HOROSKOPOA



ARIES (martxoaren 21etik apirilaren 21era)

Komenigarria da atsedeen bat hartzea. Zure bizkarrak eskertuko dizut. Lanean erabaki garrantzitsu bat hartu behar izango duzu eta horrek, zure bizitzan eragina edukiko du. Asteko egunik onena asteartea izango da eta asteko egunik txarrena astelehena.



TAURO (apirilaren 22tik maiatzaren 21era)

Zure harremanean hirugarren pertsona bat dago. Kontuz! Zure adiskideak kontrolatu behar izango dituzu. Aste honetan komenigarria da loteria erostea edo kasinora joatea. Kontuz zure hagineta minarekin. Haginlariarengana joan beharko zenuke. Zure enpresak arazoak dauzka eta ERE bat egoteko aukera dago. Asteko egunik onena asteazkena eta egunik txarrena igandea.



GEMINIS (maiatzaren 22tik ekainaren 21era)

"Virus" kaltegarri bat sartu da zure etxean familiakoren baten bitartez baina lasai egon aste honetan desagertuko da. Zure bikotearekin beti bezala. Aukera daukazu kontratu on bat sinatzeko. Asteko egunik onena astelehena eta txarrena larunbata.



CANCER (ekainaren 22tik uztailaren 22ra)

Masajeak hartzera joan behar izango duzu eta egun bat SPA batean gozatu beharko zenuke. Jeloskortasunak zure harreman apurtuko du. Zure enpresa momentu honetan ondo dago baina kontuz etorkizunean. Asteko egunik onena igandea eta txarrena osteguna.



LEO (uztailaren 23tik abuztuaren 22ra)

Pertsona berri bat ezagutuko duzu eta zure bizitzan benetako amodioa sartuko da, aprobetxatu! Curriculum bat bidaltzen baduzu zorte ona edukiko duzu. Ez gastatu hainbeste diru, agian beharko duzu. Ez duzu nahikorik lo egiten, zure buruko minak horregatik dira, atsedeen hartu! Asteko egunik onena asteazkena eta txarrena ostirala.



VIRGO (abuztuaren 23tik irailaren 22ra)

Zure bikotearekin ondo zaudenez, ordua da beste pausu bat emateko. Zure nagusiak berri on bat emango dizu, agian lanpostu hobea? Gabonetako loteria bat eros ezazu. Lasai egoten bazara, egun ona izan ahal da. Asteko egunik onena larunbata eta txarrena astelehena.



LIBRA (irailaren 23tik urriaren 22ra)

Asteburu honetan zure soinekorik onena ipin ezazu, agian zerbait pasatuko da. Ordua da aurrera egiteko, aukerak aprobeztatu! Hilerriko aberatsena izango zara, gastatu pixka bat. Zain ezazu zure eztarria, mendazko gozokiak onak dira. Asteko egunik onena igandea eta txarrena osteguna.



ESKORPIO (urriaren 23tik azaroaren 22ra)

Zure bikoteak ez zaitu ondo tratatzen, ez zuk merezi duzun bezala. Ez ezazu denbora gal! Nahiz eta zure lanak aspertu ez amore eman! Hartu zure aurrezkiak eta kapritxo bat eman. Kontuz A gripearekin! Eskuak garbitu eta musurik ez eman! Asteko egunik onena asteartea eta txarrena osteguna.



SAGITARIO (azaroaren 23tik abenduaren 21era)

Aste hau zaila izango da. Zure sentimenduak erratuta daude. Pazientzia eduki ezazu! Albiste onak helduko zaizkizu. Momentu ona da loterian jokatzeko. Zain ezazu zure bizkarra! Asteko egunik onena larunbata eta txarrena astelehena.



KAPRIKORNIO (abenduaren 22tik urtarrilaren 20ra)

Aste ona da sexuaz gozatzeko, aprobeztatu ezazu! Zure lankideekin arazoak edukiko dituzu, ez fidatu! Komenigarria izango da kirola egitea. Asteko egunik onena igandea izango da eta txarrena asteartea.



ACUARIO (urtarrilaren 21etik otsailaren 20ra)

Amodiozko gutun bat jasoko duzu eta pertsona garrantzitsu baten izango da. Ez kezkatu langabezian egoteagatik, ez duzu diru arazorik edukiko! Dieta egin behar duzu! Hobeto egongo zara. Asteko egunik onena astelehena eta egunik txarrena asteazkena.



PISCIS (otsailaren 21etik martxoaren 20ra)

Norbait berezia ezagutuko duzu, aprobeztatu ezazu! Zure nagusiak opari bat egingo dizu zure lana baloratuko duelako. Eguraldi honekin buruko mina edukiko duzu. Asteko egunik onena ostirala izango da eta egunik txarrena osteguna.

ESPINAKA HOJALDREA

OSAGAIAK (LAU PERTSONARENTZAT)

- Hostopil (hojaldre) xafla bi
- Tipula bat
- Piper berde bat
- Piper gorri bat
- Espinaka kilo bat
- Berrehun gramo irin
- Bi koilarakada olio
- Hiru koilarakada gurin
- Litro erdi esne
- Arrautza bat
- Gatz pixka bat



NOLA EGITEN DA:

Lehenago espinakak egosi behar dira. Bitartean piperrak eta kipula zatitu. Jarraian zartagin batean olio bota, berotu, eta tipula eta piperrarekin sofritoa prestatu. Espinakak egosita daudenean xukatu eta ondoren sofritoarekin nahastu.



BEXAMELA EGITEKO:

Beste zartagin batean, gurina berotu, irina bota eta nahastu. Ondoren esnea eta gatza bota behar dira eta azkenik, guztia nahastu.

Bexamela eginda dagoenean olio errearekin ondo nahastu.

Beranduago, erretilu batean hostopil xafla bat ipini, gainean bexamela espinakarekin bota eta gero beste xafla bat ipini. Bitartean labea berotu.

Bukatzeko arrautza irabiatu eta sukaldeko eskuilarekin hojaldrea busti. Labean hamabost minutu eduki 200°C-tara eta labetik atera.



ON EGIN!

EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

6

ARRAIN, USAIN, ZAIN

Bada euskaraz hitz-sail bat euskalki batzuetan *-ain* bukaera, beste batzuetan *-a(i)ñ* eta beste batzuetan *-ai* duena. Horien artean gehien erabiltzen direnak *usain*, *arrain*, eta *zain* eta honen eratorriak (*artzain*, *diruzain*, *ertzain* e.a.) dira. Literatura euskalkiei dagokienez, bizkaieraz, lapurteraz eta zubereraz, eta Baztango eta Nafarroa Behereko testuetan, palatalizazioa gorabehera, *-ain* da hitz horietan betidanik azaltzen den forma; gipuzkeraz eta Goi Nafarroako testuetan, aldiz, *-ai* da lehen testuez gero beti agertzen den aldaera.

Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *-ain* eta *-ai* aldaerak dituzten hitzetan *-ain* formak erabil daitezela; hau da, *arrain*, *usain*, *zain*, (eta honen eratorriak diren *artzain*, *atezain*, *diruzain*, *itzain*, *ertzain*, *gotzain* e.a.), *dohain*, eta orobat, *orain* idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero *mahai*, eta ez *mahain*, idatz dadila.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

-ZIO

Euskarak latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko maileguen artean *-tione* atzizkiak axola berezia du, euskal hitzei ere gehi baitakieke, *amorrazio*, *begitazio* eta kidekoak emanez.

Atzizkiak zenbait aldaera ditu euskalkien arabera. Literatura tradizioan nagusiak hauek dira: *-zino* edo *-zin̄o* bizkaieraz (*-zino* zenbait idazle lapurtar klasikotan ere agertzen da, eta bizkaierazko zenbait testu zaharretan, baita ere *-zinoe*); *-zio* gipuzkeraz, goi-nafarreraz, eta Aezkoa eta Zaraitzuko hizkeretan, eta *-zione* Iparraldeko euskalkietan, Baztanen (baita ere *-zio*, Echeniquek bederen) eta Erronkarin. Azken hogeita bost urteetan euskara batuaren eraginez horietako bi aldaera dira ia erabat gailendu direnak: *-zio* Hegoaldean eta *-zione* Iparraldean. Beraz, badirudi euskara baturako hautaketa bi aldaera horien artean egitea dela bidezkoena, eta soziolinguistikazko arrazoien kariaz Hegoaldean erabilia dena hobestekoa dela.


Hortaz, Euskaltzaindiak *-zio*, *-zino*, *-zin̄o*, *-zinoe* edo *-zione* aldaeren artean *-zio* aldaera (hots, *amorrazio*, *begitazio*, *debozio*, *instalazio*, *integrazio*, *zibilizazio*, *administrazio*, *segizio*, *barkazio*, bezalako formak) hobesten du euskara baturako.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)



EUSKALTZAINDIA

etxebarriko euskaltegia



hamaika kolore

hamaika aukera

Maila guztiak
EGA
Hizkuntza eskakizunak
Guraso taldeak
Erretiratuak

BOGA
Ordenagailu bidezko autoikaskuntza

eta
Udalaren dirulaguntzak

Todos los niveles
EGA
Perfiles lingüísticos
Grupos de padres y madres
Jubilados/as

BOGA
Autoaprendizaje por ordenador

y
Con subvenciones del Ayuntamiento

